



Īleroko aldizkingi edefgariduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—:	V Urtea	1923'ko	Epaaila	51 Zenbakia	:—:
-----	---------	---------	---------	-------------	-----

Iruña'ko Obispo jaun Agurgaria il da

LOPEZ-Mendoza'ren Jose Anai, Iruña'ko Gotzai edo Obispo jauna Ilbeltzaren 31'an il da, Iruña'ko bere jauregian, 23 urtez Eliz-baŕuti onen Buru izan ondoan.

Burgos'ko Frias erian jaioa zan. Apaizgorako azkeneko bi ikas-usterañokoa Burgos'ko Apaiz-gai tegian egin zuan. 1866'ean Agustin'daŕ egiñik, urengo urteko Agoŕean eman zuan bere eskeñitza. 1873'ean Aita egin zan eta bereala Teologia'ren Irakasle egin zuten, lau urtez ori erakutsi ondoan Efoma'ra bialdu zuten Eliz-legetia ikastera ta ortan Irakasle egiñik itzuli zan España'ra. Baño etofi beŕian Jaungoikoaren itza erakusten saiatu zan bere biotz sutsuak eragiñik. Eskorial'go Buru-ordoko ta Gogo-eragiŕe izan zan 1891'ean Jaka'ko Gotzai edo Obispo'tako autatu zuten arte.

Andik zortzi urteren buruan Iruña'ko Gotzai izentatu zuten eta 1900'ko Joŕailaren 11'an egin zuan Iruña'n bere saŕera bikain-bikaina.

Bere bizitza iru itzetan esan dezakegu; *otoitza, lana ta eiukitasuna*.

Ezaguna zan gure Gotzai maitearen goizeroko ta gueroko otoitzerako oitura. Goizeko lauterdietan jeikitzen zan osasuna izan duan artean, bostetatik seieteraño bere gogo-otoitza egiteko, seietañ Meza santua eman ondoan, beti bere Kapelauarena osoa entzun nai izaten zuan. Gauetan apalondan or-

du batez ta erdiz noiznai beñiz bere gogozko otoitzaldia egiten zuan, bere Apaizgoazko otoitzak aipatu gabe.

Lanerako etzuan neufirik, ofek estutzen zuan garaietan eta osasuna izan duan artean Eliz-bañuti luze-zabal ta neketsu onetan sañitan edo maiz egin dituan Ikustaldiak gogoratzea besterik ez da bea. Eta berez ezin egin zuan ontan, bere orde z egin-azi diote Apaiz-Buruari ta Konfirmazioak beste Gotzaien bidez eman arazi ditu. Berari idazten zitzaion karta gutxi utziko zuan, bere eskuz bereala erantzun gabe. ¿Nork esan zenbat predikatu duan?

Erukitsua. Au zan gure Gotzaiaren bereixkafia. Etzuan biotzik, iñoiz ezer ukatzeko; esku zabala ez baño abafa zan; ezin zuan beařik ikusi, eskua luzatu gabe; ta guzietarako eziñez arkitzen zan bein baño geiagotan. Noiz-pait zerbait mingafi izan ba-zuan ondo ordaindurik ta azturik zegoan Napañoan zitzaion maitetasun aundiaz.

Barkatu beař d'idazute esatea gurekin izan duan ondo-etofiaz itz erdi bat. Iruña'ra etofi zan gauean, Iruña'ra gabe, gure bakartegi edo konbentura etofi zan eta afera gozo, atsegintsu ta pozgafia egin zioten gure orduko Aita, Aita-gai eta Anaiak. Bat-batean jaitxo polita bere atsegingaritzat gertuz edo prestatuz. Andik aufera beti egiazko Aitaren biotza izan du Kaputxinoentzat.

Urte geienetan bi egunez jeixten zan gure bakartegira ta egun bat osoa edo geientsua gurekin igarotzen zuan.


Euskaldunak berari zoř izango diogu gure Apaizgaitegiak euskera erakustea.



Gutxiena uste genduan garaiean txarago jaři ta ala ere Elizako guziak ezagura osoan arturik, guziei barkazioa eskatuz ta bedeinkazioa emanez il da Ilbeltzaren 31'eko garaieko bederatzieta.

Napaño guziak erakutsi du bere naigabea; eřitan eta konbentutan egiten ari zaizkion ileriaz gañera iru ileri ikusgafi egin zaizkio Iruña'ko Eliz-buruan edo Katedralean; lenengoan Gazteiz'erako izentaturik dagoan Aita Zakarias Hueska'ko Obispo jaunak eman zuan meza; bigařenean orain arte Gazteiz'ko Gotzai izan zan Eijoo Obispo jaunak eta irugařenean Toledo'ko Obispo Laguntzaře Aita Colon jaunak.

Jaunak bere beso artean artua izango duala uste degu, baño oraindik zerpařen beařik ba-lu bere gogo edo animak, otoitz bana eskatzen dizutegu bere onetan gure Zeruko'aren irakurleoi.

Idazkolak





Iruña'ko Obispo Jauna'ren Eriotza

Aitagurearen 4.ⁿ Eskabidea

Panem nostrum quotidianum da nobis hodie.

(Luc. XI-3).

Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia.



Aitagurearen lenengo zatian Jesus'ek erakutsi digu Jaunkoari dagokion ta guk bere maitetasun bizienaz nai izan dezakiokegun eta eman dezakiokegun guzia eskatzen, lengoetan ikusi degunaz. Gaur saritzen gera aren bigarren zatian. Ontan erakutsi digu Jesus'ek guk beaŕ ditugun eta guri dagozkigunak eskatzen.

Lenengo iru eskakideak biotzez egin ezkeroz Jaunaren grazian edo eskeŕ onean gu jartzeko asko litzeke, pekatuz loiturik ba-geunden ere lenagotik.

Eta onela Jaungoikoaren graziak piztu ezkeroz, gure animak beaŕ du bi-zi-gaia au da janaria ta auxe da Aitagurearen laugarren Eskabidean, Jaunari eskatzen dioguna: *Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia.*

G. Zer eskatzen degu, «emaiguzu gaur ::: gure eguneroko ogia» diozunean? :::

E. Gorputzarentzat beroni dagokion janaria ta animarentzat bere eskeŕa ta Sakramentuak eskatzen dizkiogu Jaunari, «emaiguzu gaur gure eguneroko ogia diogunean». (B. I. K.)

Liburu santuen lenengo Adirazlarietan Origenes, Tito Jerusalem'daŕak Anbrosio, ta Krisologo santuak uste izan zuten Aitagure'ko itz auetan Zeru-ogi edo Eukaristiko ogia bakafik aditu beaŕ zala, ta iñolaz ere luŕeko ogirik.

Elizak lenengo egunetan jakintsuenai ematen zien adizbidean erakusten zien «gogozko janaria» beaŕ zala artu *eguneroko ogi* itz oietaz eta Eŕoma'ko Mezaren adirazleak ere era berean artzen zituan. Baño Zipriano, Kromazio, Jeronimo, Agustin eta beren ondoreko geienak diote bi gauzak eskatzen ditugula, animarakoak eta gorputzerakoak biak, eskatzea nai duala gure Jaunak.

Ikusi Agustin deunak diona:

Diozunean: *emaiguzu gaur gure eguneroko ogia*, aitortzen dezu Jaungoikoaren edo eskalea zerala. Baño ez lotsatu; luŕean dan aberatsena ere Jaungoikoaren eskalea da. Aberatsaren atetan tente dago eskalea; baño aberatsa bera ere dirudun aundiaren ate auŕean dagoana da. Aŕek eskatzen dio ta berak ere eskatzen du. Ez balitz beartsu, Jaungoikoaren belafietara

ez luke otsegingo. Aberatsak zer beař du, ba? Badut kopeta esateko, eguneroko ogi beraren beařean dago aberatsa. Zergatik dauka guzietaz ugari? Nondik ditu Jaungoikoak eman dizkiolako ez pada? Zer izango du Jaungoikoak atzeratzen ba-du eskua? Asko ez al dira aberats etzan eta beartsu jeki? Eta afeke premirik ez izatea, Jaungoikoaren esku-zabalari zof zaio ta ez bere indafari.

Agustin berak dio:

Baño, maite-maiteak. sabela betetzeko ta aragia sendotzeko dan ogi au Jaungoikoak ematen diote bere laudalariei, biraolariei ere bai... Ogi au Jaungoikoak onai ta gaiztoai ematen dien ezkeror, uste aldezte ez dela semeak eskatzen duten ogirik? ontaz esaten zien Jaunak obanjelioan eta: *ez da on semeen ogia artu ta zakurei botatzea*. (Mat. XV-26)... Ori da Jaungoikoaren itz, egunero ematen zaiguna. Gure ogia egunerokoa da; ortatik bizi dira ez sabelak, baizik gogoak; guk orain mastian edo ardantzean lanean ari geranak beař degu janaria, ez salaria. Gure eguneroko ogia Eukaristia da...

Buenabentura deunak nola adierazten duan.

Buenabentura deunak adierazten digu itz oiek esan nai duten guztia, bera baño afeagokoen esanak bateratuz. Mateo santuak dio eman iguzu gaur *izatez-goiko* ogia (panem supersubstantialen.) Baño au bakarik eskatzen ez dalako, baizik bizitza ontarako beař degun guzia, argatik Elizak Lukas santuarekin esaten du (quotidianum) *egunerokoa*, «efela adieraziz, eskatzen duala bizitza ontarako beař degun bizigai guzia.» «Geroztik Jeronimo'k diotaz, naiz *egunerokoa* esan, naiz izatez-goikoa, bi gauzak ebreezko esaneri ondo dagozkie.»

«Oař zaitez, beraz, bost ogi-mota eskatzen dituzula ortan. Lenengoa bizitza ontarako bizi-gaia; bigafena Eskritura edo liburu santuen adizpidea; irugafena Eukaristiako Ogi-deuna; laugafena grazi edo eskefaren laguntza ta boskafena Jaunaren esanean ibiltzeko gogo ona.»

Ez dago ba, dudarik edo zalantzarik.

Eguneroko ogia eskatzean

1.^a diogu eman dezaigula Zeruko Ogi bizi, guri bizi emateko zerutik jetxi zan Jesus-ogia. 2.^a eskatzen deguna da beste gure animaren bizi-gai guzia; ta au eldu zaigu Jaungoikoaren itza entzutetik, aditzetik, ori gogoratzetik, otoitz egitetik, efukitasunezko lanbide guzietatik eta beste sakramentuak beař diran garaietan artzetik. Ta irugařen tokjan eskatzen deguna da gure gorputzarentzat jan-edana ta estalpidea. Ori guzia esan nai dute ba *eguneroko ogia* itzak.

Esaten degu *eman iguzu gaur*; biarko egunaz ez degulako bizi beař kezka, Jesus'ek erakutsi zigunaz, diote santu batzuek; baño beste batzuek Agustik Santuarekin diote *gaur* ofek esan nai duala *bizitza ontan*, onek irauten digun artean.

Aufak, beař duan guztia, uste du arkitu gurasotan; uste ortantxe beař dio kristauak bere Aita Jaungoikoari eskatu gorputz-animarako beař duan guzia: «emaiguzu gaur eguneroko ogia» esanez.

Intza'f Damaso An. O. M. Cap.

PADUA-KO ANTONIO DEUNA

Zuaitz osasungaria



dako egun alai-zoragari bat zan. *Baratz-zaia* mendiz-mendi, ibañez-ibañ lore bila zebilen. Bide baztañtxo batean, belar artean izkutaturik landare erne beñi, polit-polit bat arkitu zuan. Bere edertasunaz atsegindurik, andik atera ta baratzatxo babes batean aldatu zuan. Inguruan sortzen zitzaizkion belar gaiztoak erne orduko kentzen ziozkan; legorak galdu etzezan maiz eta oparo ura ematen zion eta ondoa maiz atxuritu ta zimaurtzen zuan. Oñela zaituta, landaretxo ura egunean baño egunean aundi-

diago, mardulago ta ederago zan.

Baratz-zai onek baratzatxo oñezaz gañera, beste loretegi aundi ta bikañ bikaña zeukan. Loretegi artan lore ta landarerik ikusgañienetakoak aldatzen zituan. Ango añosa, lili ta limoi-loreak! Ura usai gozoa! Lorategiaren erdian etengabe ura zerion iturri eder bat zeukan. Baratza ontako lurra oso bigun eta gozoa zan eta alik ondoena maneatua zegoan. Txit egoki egutera-tua zan-da, uda ta negu eguzkiak osoro jotzen zuan.

Gure *Baratzazai* onek bada, belar artean arkitu zuan landare ikusgañi ura, udabefia eldu zanean, loretegi bikañ ortara aldatu zuan. Landare gaztetxo ark toki beñian irabazi aundia egin zuan. Adarrek eñuz azi zitzaiozkan eta Maiatz aldera loreturik, uda eldu zanerako garau edo frutu samur, gozo ta bikañez bete zan. Ura zan zuaitz edo arbola! Aiek ziran garau edo frutu ederak! Gaitz edo miñ guztiak sendatzeko gai obeagorik etzan iñon sortu. Sagar aiek jan-da legenafez beteak garbitu, elbarñiak sendatu, gose ta egari ziranak asetu ta ilunak alaitu egiten ziran. Itz batez, gorputzeko ta animako gaitz guztiak sendatzeko gairik edefena zan.

Alderdi artako eñegeak zuaitz afigañi oñen beñi izan zuanean bere jau-regiko lorategian jañierari zuan; eta bere mendeko guztiak beren gaitzetan zuaitz ofetara joatea nai izaten zuan.

Zuaitz osasungari ori oraiñ ere eñege-lorategian dago; bere edertasun eta bikaintasunak len bezela diraute. Eñege-loretegi ori zerua da ta zuaitz eder, bikañ ikusgañi ori Padua'ko Antonio Doatsua da.

Portugaleko eñiburu Lisboan mila eun eta larogei ta amabostgañen urteko (1195) Abuztuaren amabostean (15) jaio zan. Amabost urtetan Agustindar kanonigoetan sartu zan. Ango bizi-bidea lasaxamaña egiten zitzaiolako, ogei-tabost urte zituala, Asistat G. A. Prantzisko Doatsuaren ordenan sartu zan. Ordena ofetan, eñ-jakiñai zerubidea erakutsiaz, gaiztoak bide oneratuaz eta

zebiñen toki guztietan arimako ta gorputzeko gaitz asko sendatuaz bederatzi urte egin da, ogei ta masei urtetan, Padua ondoko konbentu batean mila befeun da ogei ta amaikagañen urteko (1231) Garagañilar-en amairuan il zan.

Uste osoz beterik gure atsekabe ta neke guztietan *Zuaitz osasungari* ofetara joan gaitezen eta Jainkoaren aintzarako ta gure arimen onerako bada beintzat, atsegiña arkituko degu.

O'tař Ak.

S. JOSEREN IRITXOA

(*Ele xahara*)



AZTAN aldeko mendi tartian bezala, ba zan Pales-tinan ere, efi txiki ta polita, zeruraño goratzen ziran mendi tartian xoko xoko batian jafia.

Goizero, goizero, mendiko lañuak zekar-ion xokoto artan beař zan otzaroa Ariñ ibiltzen ziran txorritxu bixiak, sasitik sasi, ta etxetik etxe, batetik bestera egaka ta Jangoikoaren aintza kantari. ¿Zer efi dela uste dezute? Efi txikia, iñon ere aipatua,

ludi xokoto batian altxatua... Ori da, Nazareth.

Ortxe bizi ziran iru... baño joiek iru zerutařak! Gizonak zuen izena Jose, emakumeak Maria eta aingeruak bezaiñ auř edeř ile-kixkurdunak Jesus.. Beartsuak dira, baño bai ta doatsuak ere. An dago Jangoikoa. Auř edeř-edeř ura Jaungoiko ber-bera da. Auřpegia argi lambro batek inguratzen dio, eta bere begiratzea beti da xalo.

Ofen begiratze gozoak «aitaren» neke guziak gozatzen ditu, eta egunero-egunero, lanari jo baño len, besarka bat ematen dio aurtxoak «aitari».

Ama iru-egiten ari da: auřa bere oatzetxoan, ta «aita» beřiz zurgingoan.

Aurtxoa loak artu du, eta ametsetan asi ere. Aingeruekin asi zan jostaketan, iři-bařeka beti, eta besuak zabalduz, besarkatu naiez bezela. Ez iges egin, aingerutxo egaldunak, zion, ez iges egin... ez jo egalakin ere, zion, eskua aurpegira eramanez. Guazen, guazen denok nere amarengana...

Jose eta Maria biek elkafi begiratu zioten itz bat ere esan gabe, eta bi-urtu zituzten beren begiak aurtxo ile-kixkurdunarengana...

Esnatu zan aurtxoa, eta «ama» esanaz besarka gozo bat eman zion bere amari... eta amak «nerea» esanaz estutu zuen bere biotzaren kontra. Gerro aurtxoak begiratze goxo bat bialdu zion bere «aitari,» eta «aitak» iritxo bat itzuli zion aurtxoari...

Egunero, egunero gertatzen ziran onelokoak, eta egunero zeruraño goratzen ziran mendi kaskoetatik jeisten zan lañoa xoko artako aizea gozatzer.

Begi beltx.



Gurutze ondoan



Donosti A'k bildua.

Almandoz'tar Norberto J'ak ereskidetua.

First system of the musical score. It consists of a treble staff and a bass staff. The treble staff has a key signature of one flat (B-flat) and a time signature of 2/4. The bass staff also has a key signature of one flat and a time signature of 2/4. The music is marked with a piano (*p*) dynamic. The first two measures are in 2/4 time, and the third measure is in 3/4 time, marked with a ritardando (*rit*) and a fermata.

Second system of the musical score. It consists of a treble staff and a bass staff. The treble staff has a key signature of one flat and a time signature of 2/4. The bass staff also has a key signature of one flat and a time signature of 2/4. The music is marked with a piano (*p*) dynamic. The lyrics are: A - ma - ze - gon ne - gar - tu - a. The first two measures are in 2/4 time, and the third measure is in 3/4 time.

Third system of the musical score. It consists of a treble staff and a bass staff. The treble staff has a key signature of one flat and a time signature of 2/4. The bass staff also has a key signature of one flat and a time signature of 2/4. The music is marked with a piano (*p*) dynamic. The lyrics are: gu - rutz - o - ñan il - - tza - tu - a. The first two measures are in 2/4 time, and the third measure is in 3/4 time.

Se - mi - a za - go - ni - an

Se - mi - a za - go - ni - an

rit

geldiro

rit

GURUTZE ONDOAN

Ama zegon negartua
Gurutz-oñak iltzatua
Semia zagonian.

Beraren gogo gaixua
Gaitz-naigabez ilundua
Ezpataz zaurtu zuan.

¡O! zein ilun, zein atsege
Izan zan orduan Seme
Bakafaren Ama ura!

Minduna zan Ama Miren
Ikustian Semiaren
Ainbat neka ta aidura

¿Adiaka nor ez dari
Beiratu-ta Ama onari
Ainbesteko miñakin?

¿Nor ez dago gogoiñuna
Ikusita Ama kuñuna
Itzirlz Semeakin?

Bere umien gaitzagatik
Lekus Josu oñazturik
Eta zigorpetua.

Lekus Seme maite uraxe
Alaz iltzen, utzi arte
Azkenikan gogua.

Iya, Amatxo, sendo-indañaz
Emaidazu miña, adiaz
Egoteko zurekin.


Josu nere biotzari
Kristo maite ta pozgafi
Beretzat izan nadin.

Olaxen.

Zaurtu=miña eman.—*Aidura*=nekia.—*Adiaka*=zotinka negaiez edo intziriz.

Efenderi'tar Eramun A., O. M. Cap.

*Ilbeltzako zenbakian abesti asieran bost bemol ba-
kañik agertu ziran, seigarenak uts eginda: ara nola izan
bear ziran:*



A'ONA ETA BILOBA



Bazan bein a'ón za' bat, larogei urte baño geiago bazeuzkana.

Gizajoak, ibiltzeko ere, inda'rik etzuan; oso sofa zegoen gero, eta begiak ain argalak eta ilunak zeuzkan; pitin bat ere etzuen ikusten.

Maian ezin zuan euki zalia, bere eskuak dardaraz zeuden eta, maiz zukua ixuririk, maia eta bere soñeko guztia zikintzen edo koipeztutzen zituan.

Gauza diek, Jose zeritzan bera semea naigabetu ta samintzen zuten, eta alako batean, zerbait asafetu-ta, aitarengana ondoraturik «aita, diotsa, emen-dik aufera labetxoren atzean jango dezu, obe izango da ta»...

Aitak, burua makufurik, etzion etzertxo ere erantzun, baña nega'ari eman zion, bere semeak maian etzuala ikusi nai gogoraturik.



Auñamendiko galdora

Beste batean, bazkaltzen ari zalarik konketa bat erortzen utzi zuan, eta autsi zan.

Zurezko kati'lu bat erosi zion Josek, eta «aita, gaurgero, diotsa, kati'lu ontan jango dezu, zure konketak austen bai dituzu».

Josek ere bazeukan seme bat, zortzi urteko ume koxko' bat, Julio zeri-tzaiona.

Julio txikitxoak bere aitari esan zion «aita, alegia, ezta autziko a'ónari erosi diozun zurezko kati'lu ori!»

—Ez, noski, nere semetxo laztana, erantzun zion Josek. «Baño, zerga-tik galdetzen didazu ori?»

—Ni, zu bezin aundia izatean, eta zu, nere ařona bezin zafa, katilu on-tan janeraziko dizut, erantzun zion Juliok!»

Ařitu zan Jose, nola itz egiten zion semeak, eta baita laister ulertu (aditu) ere, esan nai ziona.

Orduan ezagutu zuan, ondo gomendu (serbitu) eta itzal aundiaz begiratu beař zaiela gurasoai, ori berbera guri txikiak egin dezaiguten naiez badegu.

Ordudanik, ařonak maian bere tokia ařtu zuan, eta saiatu ziran gařera Joxe ta Julio ardura txeratsuenaz aren kontua izaten.

Rocherolles (Pantzeratik euskeratua)

Tolosa'tař Marzelino O. M. Cap.

GAĻA'KO MISIOA (afrika)

Gambo'tik 1922-III.



RAIN urte asko da gure Aita Santuaren Ordeko agurgafiak gure siřismenaren aldeko lanak oraindik siřismenik gabe dauden eřialdeen biotzetara zabaldu nai zituala.

On guziaren betiko etsaiak sortutako mota guzietako trabak garaitu, deabruaren pezoın edo trintxeran Gambon izena dun ta Abisinia'tař ber-berak orain bi urte lenbizi sartu ziran eřian, sartu giřan.

Leku ura edeřa ta ezin esan bezin gizona da; ango biztanleak artzai ofonak (nomadak) kontu aundiz ordurařo besteai arako sařera galerazi zien.

Jende auentzat gauzarik aundiena da ařotzen bat iĻaz bere ausardia era-kustea; ořegatik erne egon beařko degu alik eta gizon fedegabe auei bere oiturak zerbait gozatu arte. Ořegatik onera etoři geranetik lagun egin di-daten kristauak gure etzauntza edo kamentuaren inguruan gau ta egun erne ta zai egoten dira txandaka.

Onera etoři geran ezkeroztik Taferenē aundikiak emandako luř-zati aundi batean bizitzen gera. Bere biziko tokia ta ondo begiratuak izanaz ta batez ere ontasun aundia eginaz Jaungoiko Artzaiaren arditegira arditxo as-ko eramango ditugulako ustean.

Gizaki edo tribu onen buru batzuen ezagun-egin naiz ta gaixoai lagun-tzen ibiltzen naiz; onek batez ere biotza ikutzen die basa-gizon auei.


Bere ustez aien gorputzeko gaitzak sendatzera ta aien luřaldetik igaro-tzen dan ibai-edeřaren bazteřean eřota bat egitera otoři naizen *Frangi* sen-dagiĻea naiz ni.

Geixago ezagutuko nautenean, jende auek eraentzen (gobernatzek) di-tuzten jauntxo altsu oietako batek semetzako ařtu nazan saiatuko naiz; onek ni ta nere lagunak iřork ikutzea debekatuko du ta angotařak bezela begira-

tuak izango gera. Orduan, Jaungoikoak nai badu, agirian ere nere soñeko edo abitua eramango det orain zuurtziaz, (prudentzaz), ezin eraman baidet nere etzauntza edo kanpamentutik kanpoan.

Begira, ba, nola zure otoitzen beař naizen.

Zure laguntza beař det nere lan egiteko gogo biziak ase ditezen *Gambo'n Arusu* efiaren biotz-biotzean misio edef lafetsu bat ipiñiaz. Okeř ezpa-




LAZKANO (Gipuzkoa)

nago, luzatu gabe gaztigatuko, (abisatuko) dizut nola ařotzaren odolzale diran basagizon: auek Jesukristo sendagileen sendagilearen esku trebeaz ardi-txo otzan egin diran.

Uste onekin agur egiten dizu Jesus'en biotzagan txit maite zaituan onek.

Anai Serafin O. M. Cap.





! ZUZENTOKIA!

Zuzentoki bat (correccional) eskatzen zuan orain ilabete gutxi a derdi askotan Jaungoikoaren alde

ta oitura onen alde lan aundia egiñez dabilen emakume ospatsu batek.

Zuzentoki bat, baño norentzat; norentzat? gurasoentzat? ez, gurasoentzat ez, baizik ameenentzat batez ere.

Zergatik ote? biotz gogofez ta patxara ta pake aundiaz bere alabak dantza lotu ta zikiñetan ikusten dituztelako, itz erdi bat iñoiz ere esan gabe.

Zuzentokia, ez, gutxi da! ¡Eroteria beaf lukete guraso oiek ama oiek, zion emakume afeek! Gurasoak burua galtzea beafezkoa baita olako dantzeta beren alabak bialtzen dituztenean edo joaten uzten dituztenean.

Emakumeak egiteko aundia dauka mundu ontan. Ama izateko antatua izan da, aufak azi ta zeruratzeko autatua izan da.... baño jongi betetzen ari da bere egitekoa gaurko egunetan noski!

Bere alaben animak iltzen ari dira ama asko, beren alaben boferoak dira ama oiek...

Oiek dira gaurko amak? Oiek ez dira amak, bere alabeen garbitasuna galtzen ari dala ikusten dute ta geldi-geldi daude, bere alaben lotsa galtzeko zorian ikusten dute, gaurko dantza, gaurko jazkera agiriaz ta gaurko irakurgai (letura) lizunen artean ta ez diete itzik ere esaten.

Ongi da, baño ez da ori guztia. Nolakoak izango ote dira biarko amak, gaurkoak olakoak baldin badira?

Orain, bere garbitasuna ta bere lotsa ga!du duten aurtxo, neskato oiek nola izan litezke biar emazte, guraso ta ama onak? ez diteke iñolaz.

Oiek gordeko al dute biar bere alaben garbitasuna ta lotsa begirunea, berak, beren amen kulpaz, iñoiz ere ezagutu ez duten garbitasuna ta lotsa?

Ez iñork ez du ematen ez daukanik.

Gure efiko eguneroko batek dionakin bukatu nai det:

Frantziko gizon ospatsu batek zion bein emakume bati: Ni ez naiz beñere ezkonduko gaurko dantzetan ibili dan neskatx edo gazte bate kin. Zergatik bada? Ni ere dantza oietan dantzatu naizelako.

¡Amak! Zuek ikusi zer izango ote diran dantza oiek!

Gabriel O. M. Cap.





GOA. Xabier Deunak sendatuak. Goa'tik Londres'eko Universe'ri idatzi diote Xabier Deunaren gorputza agirian jafi zanian, bi sendatu dituala. Sendatu dan batek kuñintxo (tumor) aundia zeukan belaun batean ta ibiltzeko nai ta nai ez makulua bear zuan. Gorputz aurian otoitz egitean, eria bestea bezin sendoa jafi zitzaiola ikusi zuan. Bigafena protestantia ta itxua zan, bai iya 19 urte. Xabier'en oñari musu eman zionian begiak iriki zitzaizkion.

NEW-YORK —Katoliko, juda' ta protestanteak. Munduan bizi diran juda' edo judioen ama'gafen zatia emen bizi da, 1920'gafen azkenian 1465.000 ziran. katolikoak 1.944.000 ta protestante mota guziak 1.942.000. 1900'tik 1920'ra judioak irutu dira, katolikoak 100'eko 58 ta protestantiak 100'eko 19 geitu dira.

Misiolari kaputxinoen lana —46 misio dauzkate mundu guzian. Iya miloi bat dira beren mendeen dauden ta begiratu bear dituzten katolikoak ta siñiska-beak 150 miloi. Joan dan urtean 42.106 itzaldi egin dituzte; 50.549 bataio; 5.274 ekafi dituzte egiazko elizara; 29.117 sendatza edo konfirmazio; 5.608.039 jaunartze; katolikoan arteko 8.398 eskontza ta 115 nastuak; 5.832 oleazio.—Misiolari kaputxinoak 1.056 dira ta lan ontan laguntzen dienak zenbatu ta, danak 2.462 dira.

INGLATE'RA.—Katolikoak gero ta geyago geitzen ari dira. Ara nolako befi pozgafiak dakartzkian *Catholic Directory*'k. Eskoziakoak zenbatu gabe, Inglatefa'n 11.621 etofi dira egiazko Elizara, Londres ta inguruetan 452.326 katoliko badi. Liverpool'ek badiu 390.715; Salford'ek 293.000; Newcastle'k 227.000. 73.522; bataio eman dira. Ikastetxeak ere ugari dituzte; bigafen ma'akoak 432 dituzte 46.882 ikastekin; lenengo ma'akoak 1.195 dira 519.308 aufekin. 2.491 apaiz, 1.444 praile apaiz, 21 gotzai ta 1.948 eliz dituzte.

NEW-YORK.—1800'g. urtean iriki zuten katolikoak lenengo eskola beren diruakin uri ontan, 50 urte geroago iriki zuan befia gobernuak. Latefi Elkartuetan (Estados Unidos) orain katolikoak 6.551 ikastetxe dituzte 41.578 maisu ta 1.795.675 ikaslekin. Gobernuak bere ikastetxetan dabilzan ikasle bakoitzarentzat urtian 40 dolar biar ditu, ofegatik koto'likoenetan dabilzanentzat iya 80 miloi dolar bear lituke urtero. Gobernuak bai ikastetxe katolikoak kendu ta bereak ia'riko balitu 288 miloi dolar joango litzaizkioke, lufak balio duna zenbatu gabe.

Aita Santua ta Afrikako misioak.—Aita Santuak Eritre'an daukan Ordezkiarekin itzegin du ta esan dio berak ezagutu zuala lufalde ayetan ainbeste lan egin zuan Massaia, Kardenal kaputxinoa. Gero jakin duanian etiopiatafen

izkeran Testamentu Zafá jartzen ari dirala, 50.000 lira eman dizkio lenbailen argira atera dezaten.

Prantziko gobernua misiolari bat goratzen.—1916'eko abenduaren 16'ean Foucauld Aita, Misjolari prantzetafari lapuf batzuek eriotza eman zioten. Urte asko zeramazkien Tamanrassef'en (Mafuekos) ta ondo ikusi-ta zeuzkan angio izkera ta oiturak. Liauthey mariskalak gobernuaren ordezkari agertu du Casablanca'n misiolari oni jaso zayon irudia (estatua). Au da misiolari beti Mafuekos'en egondako ta lenengoa.

TXEKO-ESLOBAKIA.—Lau urte oyetan etzayo bizitza inori kendu bizitza galtzera asko zigofu afen. Ofegatik gaizkileak ez dira gutxitu, geitu baizik. 1919'an bizitza galtzera zigortuak 15 ziran (10 gizon ta 5 emkume); 1920'an 26 1921'an 38 ta 21 joan dan urtearen lenengo sei ilebetetan. Gaizkileak bildurtzeko Novak deituari ez dio barkatu bizitza ta ilbeltzaren 9'an il dute. Siñismena utzi zuana zan, baño azkenean elizakoak artu ta gurutzeari musu emanaz il da.

1822'tik 1922'ra Misio katolikoak.

Eun aurre aetan Suezia ta Noruega'n katolikoak 10'tik 5.147'ra geitu dira; Dinamarca'n 100'dik 8.780'ra; Holanda ta Luxemburgo'n 350.000'tik 1.950.000'ra; Alemani goian 49.000'tik 60.000'ra. Orain eun urte Indo Txinak 400.000 katoliko zituen, orain 1.200.000. Odol ugari ixuri dute emen katolikoak, orain 1.200.000 Odol ugari ixuri dute emen katolikoak. Japon ta Korea'n 10.000 katoliko ziran ordun, ofain 170.000 dira. 30 urte bakarrik dira emen katolikoak pakean uzten dituela.

Kanada'k zituen 6 gotzai, 30 apaiz ta 500.000 katoliko gutxi gora bera. Eun urte geroago Kanada'k bazituen 38 gotzai, Aita Santuaren 6 ordezeko ta 5 miloi katoliko.

Estados Unidos'etan 1822'an 9 goterki (diocesis) ziran, bakoitzian 12 apaiz ta 400.000 katoliko. Orain 16 gotzai, 93 arzobispo, 21.550 apaiz ta 17.885.000 katoliko.

Ozeania'n etzitekean lanik egin. Apaiz bat bakar-bakarrik zegoen Australia'n ara eramaten zituzten irlandaren siñismena gordetzeko; gordeta, ezkutuan zegoen, eliz bat ere etzan. Gaur Australia ta Zelanda. Bepiak 1.200.000 katoliko ta geiago badituzte, 9 gotzai ta 19 arzobispo; 2.200 eliz ta 1.500 apaiz. Ozeani'ko ugartetan 600 apaiz misiolari ta 270.000 katoliko ba-dira.

Lege onak nola egin?—Bai asmo edera Kanada'ko diputaduak artu dute-na. Batzafá irikitzean, otoitz au diputadu-batzafaren buruak egin dezala, eskatu du Nestor Richard diputaduak. Ara otoitza: Guzialdun ta betiko Jauna, Zugandik datof eskubide ta jakintasun guzia, Zugatik agintzen dute efergeak eta egiten dituzte lege onak; ara non gaituzun lege onak egiteko bilduta; lagundu zaguzu, afen, Zuk nai dezuna bilatzen, ezagutzen ta betetzen. Zu goratu ta abefiari on egin dezaiozun. Ala izan bedi. Asmo au diputadu guziak, batek utzi gabe ontzat eman dute.

